

HKEE-REN PRENTSA OHARRA, ESKORIATZAKO UDALAREN 2012-KO FISKALIZAZIO TXOSTENARI BURUZKOA.

Herri-Kontuen Euskal Epaitegiak Eskoriatzako Udalaren 2012ko ekitaldiari dagokion fiskalizazio txostena mamitu du. Txostena aho batez onetsi dute.

Udalaren eta bere Toki Erakunde Autonomoaren kontuak besarkatzen dituen Kontu Orokorraren fiskalizazio txostenak legezkontasunari buruzko alderdiak besarkatzen ditu aurrekontu, sarrera, langileria, diru-laguntza eta administrazioko kontratazioaren alorrean; baita kontuen aurkezpenarekin lotutako kontularitzako alderdiak ere.

Legezkontasunaren atalean, Epaitegiak udalaren eta bere Erakunde Autonomoaren jarduerari buruzko iritzi orokorra eman eta indarreko araudia zuzentasunez bete dela adierazi du. Iritzi honi hainbat salbuespen egin zaizkio eta txostenean bertan daude jasoak.

Kontratazioaren atalean, HKEEk adierazi du Udalak urratu egin dituela hainbatetan administrazio kontratazioan buru egiten duten arauak; esanguratsuen hainbat zerbitzu kontratu kudeaketazko kontratu modura edo administrazioko kontratu berezi modura izapidetu izana da; berebat, aipatutako zerbitzu kontratu horietan ere, urratu egin dira, kasuaren arabera, lehia, deialdiaren publikotasuna eta berdintasun printzipioak edo ez da bermatu hautatutako eskaintza ekonomikoki egokiena zela.

Udalaren eta bere Erakunde Autonomoaren Kontu Orokorrari dagokionez, Epaitegiak aldeko iritzia plazaratu du horien aurkezpen eta edukiari dagokionez; ordea, akatsa azaleratu du, besteak beste, kontabilitateari egindako hainbat doiketen ondorioz, Udalaren Funts Propioak 0,2 mila euroan gehitu dituztenak.

Halaber, HKEEk barne kontrolari eta kudeaketa prozedurei buruzko hainbat irizpen mahairatu ditu aurrekontu, kontabilitate, sarrera fiskal, langileria, kontratazio eta beste zenbait arlotan.

Amaitzeko, finantza egoerari dagokionez esaten da Udalak kaudimen ekonomikoa duela, egoki funtzionatzeko behar hainbateko baliabideak eta zorpetu beharrik izan gabe

etorkizunean inbertsioak egiteko berezko baliabideak. Nolanahi ere, gastuari eusteko balizko neurriak aztertu behar lituzke, aurrezki garbiak izan duen beheranzko joeraren ondorioz.